

Olatz Perez de Viñasprek jasoko du II. Gladys Saria

Epaimahaiak aho batez hartu du erabakia, eta irabazlearen «ibilbide akademiko oparoa» eta «gizarte erronka handiei» erantzuteko egiten duen lana azpimarratu du



J. A.

Astelehena, 12 iraila 2022, 09:53



Olatz Perez de Viñaspre ingeniariak (Gasteiz, 1987) jasoko du II. Gladys Saria irailaren 27an, UPV/EHUko Informatika Fakultatean izango da sari-banaketa ekitaldian. Epaimahaiak aho batez hartu du erabakia, eta irabazlearen «ibilbide akademiko oparoa» eta «gizarte erronka handiei» erantzuteko egiten duen lana azpimarratu du.

Ibilbide akademikoari dagokionez, sistemen informatikan ingeniari teknikoa eta informatikan ingeniaria da, UPV/EHUko Informatika Fakultatean burutu zituen ikasketak. Ondoren, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamenduko (HAP) masterra egin zuen, 2011-2013 urteetan. Azkenik, 2017an, Hizkuntzaren Azterketa eta Prozesamendua doktoretza programa bukatu zuen, Euskal Herriko Unibertsitateko Informatika Fakultatean, Donostian.

Gaur egun irakasle atxikia da, UPV/EHUko Informatika Fakultateko Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia saillean eta ikerketa munduan ere dihardu. Azpimarratu behar da Euskarazko Tesien VI. Koldo Mitxelena Sariarekin, 2018an, Ingeniaritza eta Arkitekturaren jakintza-arloko saria jaso zuela. Horrez gain, I. Ikerlari Nazioarteko Ikerketa Euskaraz kongresuan Udalbiltzak banatutako Sari Berezia eman zioten, Euskal Herriko garapenerako bereziki garrantzitsua den gaia lantzeagatik.

Gladys sariak ingurune digitalean ari diren emakume gazte euskaldunak saritu, gazteentzat erreferenteak sortu eta egiten duten lana jendareratzeari du helburu, Gladys del Estal informatikaria gogoratzearekin batera.

PUNTUEUSEK eta UPV/EHUko Informatika Fakultateak antolatuta Gladys Sariaren bigarren edizioa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasunerako Organoaren eta Danobatgroup industria-taldearen babesarekin, eta UPV/EHUko Berdintasun Zuzendaritzaren laguntzarekin.

TENDENCIAS ▾